

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 11/2019 FORU DEKRETUA, otsailaren 26koa, zeinaren bidez erabakitzen baita «Udalekuak 2019» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko Prezio Publikoa ezartzea eta garatzen baitira haren gaineko arauak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, «Udalekuak» udako kolonia eta kanpamentuen kanpaina antolatzen du urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako foru aldundiekin koordinaturik. Kanpaina horien helburua da aisia eta astialdiaren arloko zenbait jarduera antolatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko umeek natura ezagutzeko eta oporrez gozatzeko.

Kanpaina horretan eskainitako zerbitzuak direla eta, ostatua, janaria, garraioa eta dinamizazioa, besteak beste, beharrezkoa da haien prezio publikoak ezartzea.

Apirilaren 11ko 21/1995 Foru Dekretuaren bidez Bizkaian arautu ziren udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoak (izan ere, dekretu horrek udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta horren gaineko arauak garatzen ditu); dekretuaren 4. artikuluan jasotzen dira «Udalekuak» kanpainarako prezio publikoa zehazten duten elementu kuantitatiboak.

Arlo honi buruzko azken araudia otsailaren 27ko 15/2018 Foru Dekretua da, zeinaren bidez «Udalekuak 2018» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta horren gaineko arauak garatu ziren.

2019ko kanpainarako, «Udalekuak 2019» kanpainaren udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa berrikusi eta eguneratzen da, tarifak zerbitzuaren batez besteko kostu errealerara egokitzeke.

Foru-dekretu hau izapidetzeko, halakoetan dagokion kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin da, eta kontuan hartu da zer ezartzen den bi lege-testu hauetan: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2018 Foru Agindua, ekainaren 20koa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko otsailaren 26ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:**1. artikulua. — Xedea**

Hemen zehazten den prezio publikoa aplikatu behar zaie «Udalekuak 2019» kanpainan Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak, zuzenean zein hitzarmenen bidez, antolatzen dituen udaleku eta kanpamentuetako egonaldiei dagokie.

2. artikulua. — Ordaindu behar dutenak

Prezio publiko hau ordaindu behar dute aipatu instalazioetan egonaldia egiteko esku-bidea ematen zaien pertsona fisikoek.

3. artikulua. — Kobrantza

Egonaldietarako lekua behin betiko esleitzen denetik aurrera izango da ordaindu beharra, betiere dena delako instalazioan egonaldia hasi aurretik.

**4. artikulua. — Elementu kuantitatiboak**

Bat: «Udalekuak 2019» kanpainako prezio publikoa honako tarifa hauen arabera eskatuko da:

Zerbitzua Servicio	Jaiotza urtea Año nacimiento	Txanda Turno	Euros Euro
Udaleku eta kanpamentuetako egonaldiak Estancia en colonias y campamentos	2006-2012 bitartean Del año 2006 al 2012 (Ambos incluidos)	7 egun / días	125,00

Bi: Ordaindu behar dutenen arteko batzuei %85eko hoberia aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifyan, honako hauei, hain zuzen: behin-behinean kanpamentuetarako leku bat adjudikatu eta eskabideak aurkezteko epealdiko azken egunean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familia-unitateetako kideei.

Hiru: Ordaindu behar dutenen arteko beste batzuei %30eko hoberia aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifyan, honakoei: behin-behinean kanpamentuetarako leku bat adjudikatu eta eskabideak aurkezteko epealdiko azken egunean indarreko legeriaren arabera familia ugarizat onartutako familia-unitateetako kideei (kategoria guztietan).

5. artikulua. — Kudeaketa eta likidazioa

Bat: Euskara eta Kultura Sailak egingo ditu prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa. Aipatu instalazioetan egonaldiak egiteko, prezio publikoa alde aurretik ordaindu behar da.

Bi: Prezio publikoa ordaintzeko, haren zenbatekoa sartu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak berriaz ezarritako kontu korrontean, lekua behin betiko adjudikatu ondoren eta egonaldia hasi aurretik.

Hiru: Foru dekretu honetan xedatu ez den guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudian ezarritakoa izango da aginduzko.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**ARAU INDARGABETZEA**

Foru dekretu hau indarrean jarrita, indargabeturik geratuko da otsailaren 27ko 15/2018 Foru Dekretua, zeinaren bidez «Udalekuak 2018» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki da eta haren gaineko arauak garatzen ziren.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENA**ARAUAK EMATEKO GAIKUNTZA**

Baimena ematen zaie Ogasun eta Finantza Saileko eta Euskara eta Kultura Saileko foru diputatuei foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA**INDARREAN JARTZEA**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru dekretu hau.

Bilbon, 2019ko otsailaren 26an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ